

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mikele Grande Olóriz, Aspace eta Asociación Sei izan dira 2017ko Gazteen Saria irabazi dutenak

Sari hauen banaketa azaroaren 27an izango da, 17:00etan, Nafarroako Egunaren ospakizunen barruan

Osteguna, 2017.eko azaroak 16

Mikele Grande Olóriz, 16 urtekoa (Gazteen Saria); Aspace Elkarte (Erakundearen Saria) eta Sei Elkarte (Gizarte Partaidetzaren Saria) izan dira 2017ko Gazteen Sarien irabazleak. Sari horiek Gazteriako Zuzendariordetzak banatzen ditu eta Nafarroan gazteen gizarte-partaidetza, autonomia eta bizi-kalitatea hobetzen dituzten jarduerak eta lan pertsonal edo kolektiboak saritzen dituzte. Banaketa azaroaren 27an izango da, Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan, Nafarroako Eguna ospatzeko ekitaldien barruan.



Nafarroako Jauregiko Karlos II. fatxada.

Edizio honetara 11 hautagai aurkeztu dira. Nafarroako Gazteen Sarien Aholku Batzordeak izendatu ditu eta gaur goizean bildu dira xede horretarako Gazteen Zuzendariordetzaren egoitzan. Batzordea aurreko edizioko irabazleek, Nafarroako Gazteen Kontseiluak, unibertsitateek, komunikabideek eta gazteriako teknikariek eta NLGIko ordezkariak osatzen dute.

Mikele Grande Olóriz

"Gazteen Sariak" 14 eta 30 urte bitarteko Nafarroako Gazteak saritzen ditu, besteak beste balio hauekin lotutako jarduera pertsonalak dituztenak: solidaritatea, gaitzitatea, esfortzua, lana, tolerantzia, kultura artekotasuna, nazioartekotzea, beste gazte batzuentzat erreferente izan dadin.

Aurten Mikele Grande Olórizi eman diote, aurretik adierazitako balioak bateratzen dituelako, gaitzitearena bereziki. Mikel erreferente bat da gazte guztientzat, eta bereziki bere transexualitate egoera berean

daudenentzat. Ausardiako eredu da, hain gaztea izanda, jendaurrean agertzen delako gure gizartea aldatzeko.

Oraindik modu irekian hitz egiten ez den errealitate bat da.

Nafarroan 100 adingabe inguru daude transexualitate egoeran. Mikelek Ekhiñe Etxeberria Garjón zinemagileak idatzitako eta zuzendutako izen bereko dokumentalean parte hartu du. Dokumental horrek, gizarteak zenbait pertsonaren bizitza baldintzatu eta zailtzen duen erraztasunari buruzko gogoeta egiten du, pertsona horiek "desberdintzat" hartzen dituelako.

Enplegurako Aspace Nafarroa Fundazioa

Gizarte-partaidetzari emandako sariak gazteen partaidetza sustatzen eta bideratzen duen taldea edo elkarte nabarmentzen du, jarduera-maila handia badu eta gazteak Nafarroako garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean parte hartzea bermatzen badu. Bere jarduera-esparrua Foru Komunitatea edo beste lurralde bat izan ohi da, kasu honetan Nafarroarekiko lotura adieraziz.

Aspace Fundazioa desgaitasun bat duten pertsonak laneratzeko ibilbide bat garatzeko helburuarekin sortu da, eta bereziki garuneko paralisia eta antzeko arazoak dituzten pertsonak laneratzeko. Bere lana Enplegu Zentro Berezian egiten du, Laneratze Zerbitzuan eta Okupazio Zentroan.

Okupazio Zentroan prestakuntza- eta gaikuntza-proiektu batekin hasi zen garuneko paralisia ea enplegarritasun zailtasun larriak dituzten 15 gazteentzat. 2017ko uztailaren 1etik plaza guztiak Nafarroako Gobernuarekin hitzartu dira, Okupazio Zentro gisa, beraz, proiektuaren lehen etapa burutzea lortu du. Halaber, proiektuaren berdintasun-balioengatik nabarmentzen da. Hor, emakume eta gizon kopuru berak parte hartzen du.

Sei Elkarte (Kultura arteko gizarte eta hezkuntza zerbitzua)

Azkenik, Erakundearen Sariak (publikoa, pribatua edo tokiko entitatea) gazteen aldeko jarduerarengatik nabarmentzen direnak saritzen ditu, gazteen gizarte-partaidetza, autonomia edo bizikaltatea sustatzen dituena, betiere bere jarduera Nafarroako gazteentzat bada, edo lehentasunezkoak badira.

Sei 1999. urtean sortutako elkarte independentea da, eta etorkinek, nerabeek bereziki gure komunitatera heltzean aurkitzen dituzten zailtasunekin sentikortuta eta konprometituta dauden boluntario-talde batez osatuta dago. Horregatik, bere helburuen artean dago etorkin nerabeak abegi gizartean egokitzea, parte hartzea eta integratzea daude, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenituz.

Sei nerabeak hartu eta laguntzen ditu migrazio-dolua egiten eta gizarte eta hezkuntza egokitzapen prozesuan, egokitze psikologikoan eta soziokulturean, eta modu pertsonalizatuan, integralean eta globalizatuan egiten dute, familiekin, ikastetxeekin, gizarte-zerbitzuekin, aisialdiko taldeekin eta bestelakoen elkarlanean arituz.